


Zatoz, emadazu eskutxo hori  
Ken ezazu gainetik egun aspergarrietako hautsa,  
eta etor zaitez nirekin.  
Atsedena hartu behar duzu hainbeste hotsetatik.  
Barnekoetatik eta kanpokoetatik.  
Izan daitezkeenak eta izan ezin daitezkeenak  
dastatzeko beharra duzu.  
Begiratzea, zeure baitatik irteteko.  
Entzutea, zeure baitara sartzeko.  
Ausartzea, irribarre egitea, txunditurik gelditzea,  
beldurtzea, ondoren lasaitzeko,  
bidean galtzea zeure burua aurkitzeko,  
sentitzen duzunari hitzak jartzeko,  
paperezko pistetan irristan ibiltzeko,  
apaletan barrena surfean aritzeko,  
datu-pantailetan usnan ibiltzeko...  
Irudien eta hitzen musuak behar dituzu.  
Dibertitu egingo zaituzte, besteak diberti  
ditzazun.  
Kontsolatu egingo zaituzte, besteak kontsola  
ditzazun.  
Liluratu egingo zaituzte, besteak lilira ditzazun.  
Nora goazen?  
Ez al duzu asmatu?  
Liburutegira, noski!

Mariasun Landa (moldatua)



## SORALUZeko UDAL LIBURUTEGIA

Baltegieta kalea, 2  
20590 Soraluze  
943752074  
[liburutegia@soraluze.eus](mailto:liburutegia@soraluze.eus)

Astelehenetik ostegunera  
11:00 - 13:00 eta 16:30 - 19:30  
Ostiraletan  
11:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00



## NEGUKO GOMENDIOAK

LECTURAS  
DE  
INVIERNO

# +0



**ZAZPI MUNTRO ETA KATU BAT, Rafa Ordoñez**  
Beldurtzeraino dibertigarria, sorpresaz beterikoa eta amaiera guztiz ustekabekoa. Ausartuko zara?



**OROITZAPENEN ZUHAITZA, Britta Teckentrup**  
Azeriak bizitza luze eta zoriontsua izan du, baina nekatuta dago jada. Azken aldiz basoan ibili, eta betiko geratu da lo.



**SHHH! PLAN BAT DAUKAGU, Chris Haughton**  
Lau pertsonaia basoan barrena dabilta tximeleta-sare batekin. Txoritxo bat ikusi orduko, astiro-astiro mugitzen hasi dira, soinurik egin gabe.




**KIRATSA, Eider Perez**  
Zer da usain, zer lurrin, zer kirats... Kukusoa Pantxi txakur dotorearengana iritsi da eta biak, triska, zapart eta jauzi, usain bila abiatuko dira.

# +5



**KIXKUR, PINTTOREN ARREBA, Iñigo Astiz**  
Pinttok, abestiko Pintto famatu horrexek, bazuen arreba txiki bat Kixkur izenekoa. Hau da bere istorioa.



**BASATI, Emily Hughes**  
Natura baizik ezagutzen ez duen haur bat agertzen zaigu album honetan. Basatia da, lotsarik, mugarik, disimulurik gabe.



**EID AL FITR-EKO OPARIA, A. Demarche, Y. Arrieta**  
Euskaraz eta arabieraz idatzitako ipuina. Ramadamaren amaierako festan, Eid al Fitr-en, hiru ahizpen eskuzabaltasunaz dihardu.



**HIRU LEHOI, Edu Zelaleta**  
Amonak Duniari mapa zahar bat emanez esan zion berarekin partekatu nahi zuela bere sekreturik handiena: altxor bat.

# +8



**MARRUBIZKO UDA, Karmele Mitxelena**  
Maitek askotan pentsatzen du bere familia ez dela normala, etxean ez baitituzte, antza, gauza normalak egiten. Eta norena bai?



**JAKELINEN EGUNEROKOA, Nerea Ibarzabal**  
Jakelinek ustekabeko aurkikuntza egin du: bere familia ez da bere benetako familia! Beste mundu batetik dator!



**LA BALLENA PERDIDA, Hannah Gold**  
¿Y si pudieras comunicarte con una ballena? En la inmensidad increíble del océano, resurgirá la chispa de la esperanza para Rio.



**EGUZKIA GOSALDU DUT, Michael Holland**  
Ilustrazio ederrez jantzitako naturako gertaeren bilduma honetan gure bizitzan nonahi presente dauden landareak goretsi nahi dira.

# GAZTEAK



**SURFLARIA, Uxue Alberdi**  
10 urteren ostean hiltzat jo dute Eki, itsasoan desagertu zen laguna eta maitalea. Hiletatik itzuli da Amaia jaioterrira, haurdu dagoela.



**NESKA JAIOTZEA, Alice Dussoutor**  
Jaiotterriaren arabera, neska jaiotzeak ez ditu aukera berak eskaintzen... Ezagutu munduko bost neskaren bizitzak: Kaneila, Enara, Mahnoosh, Makena eta Luisa.



**MIÑAN, Amets Arzallus, Ibrahima Balde**  
Ibrahima kamioi batean zebilen aprendiz Ginean, egun batean amak deitu zuen arte: anai txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen.



**IKUSEZIN, Eloy Moreno**  
Nork ez du noizbait pentsatu ikusezin izan nahi lukeela? Nork ez du noizbait pentsatu ikusezin izateari utzi nahi liokeela?

# HELDUAK



**VENTISCA, Marie Vingtras**  
En medio de una tormenta de nieve un niño desaparece. Empieza una frenética carrera contra la muerte, en la que se revela el pasado de cada uno.



**OSO LATZA IZAN DA, Xabier Mendiguren**  
1981eko otsaila da. Joxe Arregi zizurkildarra Madrilen atxilotu dute eta handik hamar egunera hil da, jasandako tratua ondoz.



**EL ÚLTIMO CASO DE WILLIAM PARKER, Alexandre Escribá.** William Parker se ve obligado a abandonar su retiro y enfrentar a sus propios fantasmas del pasado tras el macabro hallazgo de la cabeza de una joven en mitad de la calle.



**LA MUERTE DE VIVEK OJI, Akaweke Emezi**  
La vibrante historia de una familia y sus dificultades para comprender a un hijo de espíritu tan delicado como enigmático.



**WHITE TEETH, Zadie Smith**  
A beautifully written attempt to encapsulate the social chaos that blossoms at the bridging of generational, national and sexual mindsets.



**SUBCAMPEÓN, A. Izagirre, Z. Gurrutxaga**  
Una autobiografía desternillante, cruda y honesta, entre la comedia y la angustia. Un libro que se lee como un tobogán: rápido, divertido y con miedo.



**MAITASUN KAPITALA, Karmele Jaio**  
Emakume ahaldu eta kontzientziatutzat du bere burua Olgak, baina pott eginda geratu da maitaleak abandonatzean: zer da maitasuna gure bizitzan?



**APEGOS FEROCES, Vivian Gornick**  
Paseos llenos de reproches, recuerdos, complicidad donde Gornick desgrana el relato de la lucha de una hija por encontrar su propio lugar en el mundo.



**TITARE BETE ZORION (B1), Miren Agur Meabe**  
Juanek eta Mariak elkar ezagutu dute. Konpromiso bakarra, batak besteari zorion apur bat ematea. Baina Juan gaixotu egingo da.